**Agindua, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez aldez aurretik onartzen baita Gasteizko Mendiak/Montes de Vitoria (ES2110015) Kontserbazio Bereziko Eremua handitzeko eta haren kontserbazio-neurriak berritzeko den dekretu-proiektua, 148/2015 Dekretua, izendatzen duena «Gasteizko Mendiak» Kontserbazio Bereziko Eremua (ES2110015), modifikatzen duena.**

**Orden, de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente por la que se aprueba con carácter previo el proyecto de decreto por el que se amplía la Zona Especial de Conservación Gasteizko Mendiak/Montes de Vitoria (ES2110015) y se actualizan sus medidas de conservación, modificando el Decreto 148/2015, por el que se designa Zona Especial de Conservación «Montes Altos de Vitoria» (ES2110015).**

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2022ko apirilaren 12ko Aginduaren bidez erabaki zen hasiera ematea Gasteizko Mendi Garaiak (ES2110015) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen duen uztailaren 21eko 148/2015 Dekretua aldatzeko prozedurari.

Por Orden 12 de abril de 2022, de la Consjera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, se acordó iniciar procedimiento de modificación del Decreto 148/2015, de 21 de julio, por el que se designa Zona Especial de Conservación «Montes Altos de Vitoria» (ES2110015).

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.1 artikuluak ezartzen duenez, xedapen orokorren egitasmoak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak aldez aurreko onarpena eman beharko die, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik.

El artículo 7.1 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, establece que, una vez redactados los proyectos de disposición de carácter general, deberán contar con la aprobación previa del órgano que haya dictado la Orden de iniciación, antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan.

Azaldutako guztiagatik, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2033 Legeari eta Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legeari jarraituz, honako hau

Por todo lo anteriormente expuesto, en virtud de la Ley 8/2033, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, y de la Ley 9/2021, de 25 de noviembre, de Conservación del Patrimonio Natural de Euskadi,

**EBAZTEN DUT**

**RESUELVO**

***Lehena.-*** Aldez aurretik onartzea 2023ko dekretu-proiektua, Gasteizko Mendiak/Montes de Vitoria (ES2110015) Kontserbazio Bereziko Eremua handitzeko eta hura kontserbatzeko neurriak berritzeko dena eta modifikatzen duena 148/2015 Dekretua, izendatzen duena «Gasteizko Mendiak» Kontserbazio Bereziko Eremua (ES2110015)..

***Primero.-*** Aprobar con carácter previo el proyecto de decreto por el que se amplía la Zona Especial de Conservación Gasteizko Mendiak/Montes de Vitoria (ES2110015) y se actualizan sus medidas de conservación, modificando el Decreto 148/2015, por el que se designa Zona Especial de Conservación «Montes Altos de Vitoria» (ES2110015).

Este documento es una representación del original disponible a través del **localizador** y la **sede electrónica** indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** eta **egoitza elektronikoaren** bidez eskuragarri dagoena.

***Bigarrena.***- Aipatutako dekretu-proiektua egiteko prozedurarekin jarraitzeko agintzea, arau hauetan ezarritako izapideekin bat etorriz: Agindua, 2022ko apirilaren 12koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez erabakitzen baita hasiera ematea honako hauek aldatzeko prozedurari: 148/2015 Dekretua, uztailaren 21ekoa, «Gasteizko Mendi Garaiak» Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen duena (ES2110015); 8/2033 Legea, abenduaren 22koa, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarena, eta 9/2021 Legea, azaroaren 25ekoa, Euskadiko Natura Ondarea Babestekoa.

***Segundo.***- Ordenar la continuación del procedimiento de elaboración del referido anteproyecto de decreto, de conformidad con los trámites establecidos en la siguientes normas: Orden de 12 de abril de 2022, de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, por la que se acuerda el inicio del procedimiento de modificación del Decreto 148/2015, de 21 de julio, por el que se designa Zona Especial de Conservación «Montes Altos de Vitoria» (ES2110015); la Ley 8/2033, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General; y la Ley 9/2021, de 25 de noviembre, de Conservación del Patrimonio Natural de Euskadi.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua
Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente
MARIA ARÁNZAZU TAPIA OTAEGI
(Sinadura elektronikoa / Firma electrónica)

**DEKRETU-PROIEKTUA, Gasteizko Mendiak/Montes de Vitoria (ES2110015) Kontserbazio Bereziko Eremua handitzeko eta hura kontserbatzeko neurriak berritzeko dena eta modifikatzen duena 148/2015 Dekretua, izendatzen duena «Gasteizko Mendiak» Kontserbazio Bereziko Eremua (ES2110015).**

Habitat naturalak eta basafauna eta basaflora kontserbatzeari buruzko 92/43/EEE Direktiba (Habitat Direktiba izenaz ezagutzen dena) eta basa-hegaztiak kontserbatzeari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko azaroaren 30eko 2009/147/EE Direktiba (Hegazti Direktiba izenaz ezagutzen dena) aplikatuz , Natura 2000 Sarea sortu zen. Sare hori Europako erakundeen eta herritarren apustu nagusia da Europako lurralde osoan biodibertsitatea babesteko, eta haren helburua biodibertsitateari eustea da, basafauna eta basaflora eta Europar Batasunaren intereseko habitatak kontserbatzeko esparru komun bat zehaztuz. Horiek guztiak bi direktiben eranskinetan ezarrita daude.

Aipatutako Europako araudia Estatuko zuzenbidean txertatu zen Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen bidez, oinarrizko arau gisa, eta gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoko ordenamendu juridikoan sartuta dago Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Ondarea Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen bidez.

Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 11. artikuluaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumena da ingurumen eta ekologia gaietan Estatuko oinarrizko legeria lege bidez garatu eta bere lurraldean betearaztea.

Abenduaren 13ko 42/2007 Legearen 46.1 artikuluaren agindua betez, uztailaren 21eko 148/2015 Dekretua eman zen, «Gasteizko Mendi Garaiak» (ES2110015) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko. Dekretu horretan neurriak ezarri ziren Gasteizko Mendi Garaiak KBEan Habitaten eta Hegaztien Direktibetan ezarritako Europar Batasunaren intereseko habitat natural motak eta basa-espezieak kontserbazio-

**PROYECTO DE DECRETO por el que se amplía la Zona Especial de Conservación Gasteizko Mendiak/Montes de Vitoria (ES2110015) y se actualizan sus medidas de conservación, modificando el Decreto 148/2015, por el que se designa Zona Especial de Conservación «Montes Altos de Vitoria» (ES2110015).**

En aplicación de la Directiva 92/43/CEE de conservación de los hábitats naturales y de la fauna y flora silvestres (conocida como Directiva Hábitat) y de la Directiva 2009/147/CE del Parlamento Europeo y del Consejo de 30 de noviembre de 2009 relativa a la conservación de las aves silvestres (conocida como Directiva Aves), se creó la Red Natura 2000, la principal apuesta de las instituciones y la ciudadanía europeas para la protección de la biodiversidad en el conjunto del territorio europeo, y cuyo objetivo es el mantenimiento de la biodiversidad definiendo un marco común para la conservación de la fauna y la flora silvestres y los hábitats de interés comunitario, establecidos todos ellos en los anexos de ambas Directivas.

La normativa europea citada fue transpuesta al derecho estatal a través de la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad, con carácter de norma básica, y actualmente está incorporada en el ordenamiento jurídico de la Comunidad Autónoma de Euskadi a través de la Ley 9/2021, de 25 de noviembre, de conservación del patrimonio natural de Euskadi.

A tenor del artículo 11 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, es competencia de la Comunidad Autónoma de Euskadi el desarrollo legislativo y la ejecución dentro de su territorio de la legislación básica del Estado en materia de medio ambiente y ecología.

En cumplimiento del mandato del artículo 46.1 de la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, se dictó el Decreto 148/2015, de 21 de julio, por el que se designó Zona Especial de Conservación «Montes Altos de Vitoria» (ES2110015). En dicho Decreto se establecieron las medidas para garantizar en la ZEC Montes Altos de Vitoria el mantenimiento o el restablecimiento, en un estado de conservación favorable, de los

egoera onean mantentzen edo leheneratzen direla bermatzeko. Horrez gain, 2016ko irailaren 30ean Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ziren Gasteizko Mendi Garaiak Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) kudeatzeko jarraibideak eta neurriak.

tipos de hábitats naturales y de las especies silvestres de la fauna y de la flora de interés comunitario establecidos en las Directivas Hábitats y Aves. Adicionalmente, con fecha de 30 de septiembre de 2016 se publicaron en el Boletín Oficial del País Vasco las Directrices y Medidas de Gestión de la Zona Especial de Conservación (ZEC) Montes Altos de Vitoria.

Gasteizko Mendiak Kontserbatzeko Eremu Bereziaren (ES2110015) lurralde-eremuan aplikatu beharreko araubide juridikoa, dekretu honetaz gain, honako arau hauetan edo horien ordezkoetan ezartzen da:

El régimen jurídico que resulta de aplicación en el ámbito territorial de la Zona Especial de Conservación Montes de Vitoria (ES2110015) se establece, además de este decreto, en las siguientes normas o aquellas que las sustituyan:

a) Kontseiluaren 92/43/EEE Direktiba, 1992ko maiatzaren 21ekoa, habitat naturalak eta basoko fauna eta flora kontserbatzeari buruzkoa, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/147/EE Direktiba, 2009ko azaroaren 30ekoa, hegazti basatiak kontserbatzeari buruzkoa.

a) Directiva 92/43/CEE del Consejo, de 21 de mayo de 1992, relativa a la conservación de los hábitats naturales y de la fauna y flora silvestres y Directiva 2009/147/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 30 de noviembre de 2009, relativa a la conservación de las aves silvestres.

b) 42/2007 Legea, abenduaren 13koa, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa.

b) Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad.

c) 9/2021 Legea, azaroaren 25ekoa, Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzekoa.

c) Ley 9/2021, de 25 de noviembre, de Conservación del Patrimonio Natural de Euskadi.

Europar Batasuneko Zuzenbidearen eskakizunak eta Eusko Legebiltzarraren eta Arabako Batzar Nagusien erabakiak kontuan hartuta, Gasteizko Mendien eremuko ingurumen-balioen azterketan sakondu da, eta horrek agerian utzi du natura-ondarearen balioak daudela, eta, horren ondorioz, Gasteizko Mendi Garaiak KBEaren lurralde-eremua zabaltzea komeni den aztertu da. Babestutako eremua handitzeko erabakia hartzerakoan, Europar Batasunaren intereseko habitaten eta basafauna- eta basaflora-espezie bereizgarrien banaketa aztertu da, eta horien kontserbazio-egoera ebaluatu da.

Tomando en consideración tanto las exigencias del Derecho de la Unión Europea como los pronunciamientos del Parlamento Vasco y de las Juntas Generales de Araba, se ha profundizado en el estudio de los valores medioambientales del área de los Montes de Vitoria, lo que ha puesto de manifiesto la existencia de valores del patrimonio natural que han llevado a considerar la conveniencia de ampliar el ámbito territorial de la ZEC Montes Altos de Vitoria. A la hora de decidir la ampliación del área protegida, se ha analizado la distribución de los hábitats de interés comunitario y de las especies de fauna y flora silvestre características, al tiempo que se ha evaluado su estado de conservación.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, bere eskumenak baliatuz, inplikatutako interes publiko guztiak haztatuta, Gasteizko Mendiak KBEa zabaltzea adostu du Arabako Foru Aldundiarekin, Gasteizko Udalarekin eta eremu babestuko kontzejuekin.

La Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, ponderando en el ejercicio de sus competencias propias la totalidad de los intereses públicos implicados, ha consensuado la ampliación de la ZEC Montes de Vitoria con la Diputación Foral de Araba, con el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y con los concejos del área protegida.

Arau-testua izapidetzean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129.1 artikuluan ezarritako printzipioen arabera jokatu da. Honakoak dira printzipio horiek: premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia.

En la tramitación del presente texto normativo se ha actuado de acuerdo con los principios consagrados en el artículo 129.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas: principios de necesidad, eficacia, proporcionalidad, seguridad jurídica, transparencia y eficiencia.

Agindu honen helburua da Gasteizko Mendi Garaiak KBE Garrantzi Komunitarioko Lekua (GKL) handitzeko proposamena izapidetzea, helburuak eta neurriak egokituz eta eguneratuz, eta, aldi berean, haren izena espazio zabalduaren lurralde-errealitatera egokitzea, eta Gasteizko Mendiak izena hartzea. Hedatzeko arrazoiak dira honako behar hauek direla medio:

- Batasunaren intereseko bi habitat-motaren azalera babestua handitzea: *Quercus faginea* eta *Quercus canariensis* espezieetako harizti iberiarrak (9240) eta Txilardi oromediterraneo endemikoak (4090).
- Pagadi basofiloen eta hariztien lurralde-azalera handitzea, beharrezkoa baita Pico mediano (*Leiopicus medius*) espeziearen eta baso-kiropteroen zenbait espezieren kontserbazioa hobetzeko, eta, aldi berean, interes komunitarioko beste flora- eta basa-espezie batzuen kontserbazioa hobetzea.

Este Decreto tiene como finalidad ampliar la ZEC Montes Altos de Vitoria, actualizando y adaptando los objetivos y las medidas de conservación de aplicación, al tiempo que se adapta su denominación a la realidad territorial del espacio ampliado, pasando a denominarse Montes de Vitoria. La ampliación que se propone obedece a la necesidad de:

- Incrementar la superficie protegida de dos tipos de hábitats de interés comunitario Robledales ibéricos de *Quercus faginea* y *Quercus canariensis* (9240) y Brezales oromediterráneos endémicos con aliaga (4090).
- Incrementar la superficie territorial de hayedos basófilos y robledales, necesaria para mejorar la conservación del Pico mediano (*Leiopicus medius*) y de diversas especies de quirópteros forestales, lo que al mismo tiempo repercutirá en la mejora de la conservación de otras especies de flora y fauna silvestre de interés comunitario.

Gasteizko Mendiak GKL handitu ondoren, 5.150,90 azalera hartuko du, gehienak titulartasun publikokoak; horietatik 2.2227,70 hektarea Gasteizko Mendi Garaiak GKLren (ES2110015) lurrak dira.

Una vez ampliada, la ZEC Montes de Vitoria ocupará una superficie de 5.150,90, mayoritariamente de titularidad pública, de las que 2.2227,70 hectáreas constituyen terrenos pertenecientes a la ZEC Montes Altos de Vitoria (ES2110015).

Kontserbazio Bereziko Eremua izendatzeko prozedurak bere gain hartu du parte-hartze sozialeko prozesua, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen printzipioak jarraiki. Lege horrek arautzen ditu herritarren eskubideak, ingurumenaren arloari dagokionez: informazioa eskuratzeko, parte hartzeko eta justiziara jotzeko eskubidea, hain zuzen. Prozesu horretan, gizartearen eta ekonomiaren interesen ordezkari diren hainbat eragilek hartu dute parte. Parte hartzeko bideak irekita egon dira izapideetan zehar, interesdunei jakinarazpenak eginez eta egoitza elektronikoaren bidez, zehazki, http://www.euskadi.eus/natura helbidean.

El procedimiento para la designación de la Zona Especial de Conservación ha incluido el correspondiente proceso de participación social, conforme a los principios de la Ley 27/2006, de 18 de julio, por la que se regulan los derechos de acceso a la información, de participación pública y de acceso a la justicia en materia de medio ambiente. En este proceso han tomado parte diferentes agentes representativos de los intereses sociales y económicos. Los canales para la participación se han mantenido abiertos a lo largo de la tramitación mediante comunicaciones al público interesado y a través de la sede electrónica, concretamente en http://www.euskadi.eus/natura, lugar en el

Gune horri buruzko informazioa eguneratuta egongo da.

Horrenbestez, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean, Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legean eta Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, eta Gobernu Kontseiluak 2023ko [hilabetea]ren [eguna](e)an egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

**XEDATZEN DUT:**

**Artikulu Bakarra. 148/2015 Dekretuaren aldaketa, uztailaren 21ekoa, «Gasteizko Mendiak» Kontserbazio Bereziko Eremua izendatzen duena.**

148/2015 Dekretua, uztailaren 21ekoa, «Gasteizko Mendiak» Kontserbazio Bereziko Eremua izendatzen duena, honela aldatu da:

Bat. 1 Artikulua honela geratzen da idatzita:

«*1 artikulua. Xedea eta lurralde-eremua.*

1.-Gasteizko Mendiak (ES2110015) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen dira Arabako Lurralde Historikoan.

2.- Gasteizko Mendiak KBEren (ES2110015) lurralde-eremua, guztira 5.150,90 ha-ko azalera hartzen duena, Dekretuaren I. eranskinean mugatzen da, eta Vitoria-Gasteizko udalerriari dagokio osorik.

I. eranskin horretatik, mugaketa- eta zonakatze-mapek eta babes-eremu periferikoek arau-izaera dute.

I. eranskin horretatik, EUNIS (European Nature Information System) habitaten eta Eurpar Batasunaren intereseko habitaten mapek informazio-izaera dute.

3.- Gasteizko Mendiak KBEa zabalketa oinarritzen da Natura 2000 Sareko eremu horren egungo egoeraren inguruan eginiko diagnosian. Diagnostiko hori Dekretuaren II.

que se mantendrá actualizada la información relativa a este Espacio.

En su virtud, de conformidad con lo establecido en la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad, en la Ley 9/2021, de 25 de noviembre, de Conservación del Patrimonio Natural de Euskadi, y en la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día [día] de [mes] de 2023,

**DISPONGO:**

**Artículo Único. Modificación del Decreto 148/2015, de 21 de julio, por el que se designa Zona Especial de Conservación «Montes de Vitoria» (ES2110015)**

El Decreto 148/2015, de 21 de julio, por el que se designa Zona Especial de Conservación «Montes de Vitoria» (ES2110015), queda modificado como sigue:

Uno. El artículo 1 queda redactado de la siguiente manera:

«*Artículo 1. Objeto y ámbito territorial.*

1.-Se designa la Zona Especial de Conservación (ZEC) Montes de Vitoria (ES2110015) en el Territorio Histórico de Álava.

2.- El ámbito territorial de la ZEC Montes de Vitoria (ES2110015), que ocupa una superficie total de 5.150,90 ha, se delimita en el Anexo I del Decreto, perteneciendo la misma en su totalidad al término municipal de Vitoria-Gasteiz.

De dicho Anexo I, tienen carácter normativo los mapas de delimitación, zonificación y zona periférica de protección.

De dicho Anexo I, tienen carácter informativo los mapas de los hábitats EUNIS (European Nature Information System) y de los hábitats de interés comunitario.

3.- La ampliación de la ZEC Montes de Vitoria se fundamenta en el diagnóstico del estado actual de este espacio de la Red Natura 2000, contenido en el Anexo II del Decreto, que tiene carácter informativo.

eranskinean jasota dago, eta informazio-izaera du.

II. eranskineko informazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean natura-ondarea kontserbatzeko eskumena duen sailaren webgunean eguneratuko da, eta bertako informazioa garatuagoa izango da.»

La información del Anexo II se actualizará en la página web del departamento de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi competente en materia de conservación del patrimonio natural, donde se dispondrá de información más completa.»

Bi. 2 artikulua modu honetan geratzen da idatzita:

Dos. El artículo 2 queda redactado de la siguiente manera:

*«2. artikulua. Helburuak eta araubide juridikoa.*

*«Artículo 2. Finalidad y régimen jurídico.*

1.- Biodibertsitatearen kontserbazioa bermatzen laguntzeko, honako hauek dira KBE izendapen honen helburuak:

1.- Con la finalidad de contribuir a garantizar la conservación de la biodiversidad, los fines que persigue la presente designación de la ZEC son los siguientes:

a) Gasteizko Mendiak KBEan Habitat Direktiban ezarritako habitat natural motak eta Europar Batasunaren intereseko fauna eta florako espezie basatien habitatak mantentzea edo leheneratzea bermatzea, kontserbazio-egoera onean.

a) Garantizar en la ZEC Montes de Vitoria el mantenimiento o el restablecimiento, en un estado de conservación favorable, de los tipos de hábitats naturales, de los hábitats de las especies y de las especies silvestres de fauna y flora de interés comunitario, establecidos en la Directiva Hábitats.

b) Hegaztiei buruzko Direktibaren I. eranskinean jasota dauden hegazti-espezieen eta aipatutako I. eranskinean jasota ez dauden eta erregularki agertzen diren espezie migratzaileen biziraupena eta ugalketa ziurtatzea dagokion banaketa-eremuan.»

b) Asegurar la supervivencia y la reproducción en su área de distribución, tanto de las especies de aves incluidas en el Anexo I de la Directiva Aves, como de las especies migratorias de presencia regular no contempladas en el Anexo I citado.»

Hiru. 3 artikulua modu honetan geratzen da idatzita:

Tres. El artículo 3 queda redactado de la siguiente manera:

*«3. artikulua. Kontserbazio-helburuak, -erregulazioak eta -gidalerroak*

*«Artículo 3. Objetivos, regulaciones y directrices de conservación.*

1.- III. eranskina, kontserbazio-helburu, -erregulazio eta -jarraibideei buruzkoa, arau-emailea da, eta honako hauek osatzen dute:

1.- El Anexo III, sobre objetivos, regulaciones y directrices de conservación, tiene carácter normativo, y está conformado por:

a) Kontserbazio-helburuak, -arauketak eta -jarraibideak beharrezkoak/egokiak: hondatzea saihesteko eta kontserbazio-egoera ona eta babestutako eremuaren osotasuna bermatzeko; lekua KBE izendatzea eragin duten habitat naturalak, espezieen habitatak eta flora eta fauna basatien espezieak hondatzea saihesteko; habitat eta espezie horiek kontserbazio-egoera ona lortzea edo mantentzea ahalbidetzeko; eta ikuspegi klimatikoa txertatzeko.

a) Objetivos, regulaciones y directrices de conservación necesarias/pertinentes: para evitar el deterioro y para garantizar el buen estado de conservación y la integridad del área protegida; para evitar el deterioro de los hábitats naturales, de los hábitats de las especies y de las especies de flora y de fauna silvestres que han motivado la declaración del lugar como ZEC; para posibilitar que dichos hábitats y especies alcancen o mantengan el buen estado de conservación; y para incorporar la perspectiva climática.

b) KBEaren zonakatzearen araberako Kontserbazio-helburuak, -arauketak eta -jarraibideak.

b) Objetivos, regulaciones y directrices de conservación en función de la zonificación de la ZEC.

c) Habitaten eta espezieen kontserbazio-egoeraren jarraipena eta ebaluazioa egiteko programa.

c) Programa de seguimiento y evaluación del estado de conservación de hábitats y especies.

2.- Dekretu honetan onartutako kontserbazio-helburuetan, erregulazioetan eta jarraibideetan oinarrituta, Arabako Foru Aldundiko foru-organo eskudunak honako hauek onartuko ditu: Gasteizko Mendiak KBEa kontserbazio-egoera onean mantentzeko kontserbazio-jarduerak egokiak, habitat naturalak eta espezieen habitatak hondatzea saihesteko neurri egokiak, eta gune horren izendapena eragin duten espezieei eragiten dieten aldaketak saihesteko neurriak.»

2.- Con base en los objetivos de conservación, las regulaciones y las directrices aprobadas en el presente decreto, el órgano foral competente de la Diputación Foral de Araba aprobará las actuaciones de conservación apropiadas para mantener la ZEC Montes de Vitoria en un estado de conservación favorable, las medidas apropiadas para evitar el deterioro de los hábitats naturales y de los hábitats de las especies, así como las alteraciones que repercutan en las especies que hayan motivado la designación de este espacio.»

Lau. 4 artikulua modu honetan geratzen da idatzita:

Cuatro. El artículo 4 queda redactado de la siguiente manera:

*«4. artikulua. Funtsezkoa ez den berrikuspena edo aldaketa.*

*«Artículo 4. Revisión o modificación no sustancial.*

1.- Dekretuaren III. eranskinaren berrikuspena natura-ondarearen kontserbazioaren arloan ezar daitezkeen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura 2000 Guneen Sarean jarduteko ildo nagusiak finkatzen dituzten goragoko mailako beste plan batzuek ezartzen dutenera egokituko da.

1.- La revisión del Anexo III del Decreto se ajustará a lo que pudieran determinar otros planes de rango superior en materia de conservación del patrimonio natural que puedan establecerse y que fijen las líneas generales de actuación en la Red de Espacios Natura 2000 de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

2.- Kontserbazio eta kudeaketa moldakor, jarraitu eta malgu baterantz aurrera egiteko, egoerak edo eskura dauden ezagutza tekniko-zientifikoek hala eskatzen badute, Habitatei buruzko Direktibaren 11. eta 17. artikuluetan eta Hegaztiei buruzko Direktibaren 12. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean natura-ondarearen gaineko eskumena duen sailburuaren agindu bidez berrikusiko edo aldatuko da III. eranskina, beti ere aldaketa hori funtsezkotzat ezin badaiteke hartua izan.»

2.- Si el objetivo de avanzar hacia la conservación y gestión adaptativa, continua y flexible lo exige y la situación o los conocimientos técnico-científicos disponibles lo aconsejan, atendiendo a lo dispuesto en los artículos 11 y 17 de la Directiva Hábitats y a lo dispuesto en el artículo 12 de la Directiva Aves, mediante Orden de la Consejera o Consejero de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi competente en patrimonio natural, se procederá a la revisión o a la modificación de carácter no sustancial del Anexo III.»

Bost. 5 artikulua modu honetan geratzen da idatzita:

Cinco. El artículo 5 queda redactado de la siguiente manera:

*«5. artikulua. Arau-hausteen eta zehapenen araubidea.*

*«Artículo 5. Régimen de infracciones y sanciones.*

Arau-hausteen eta zehapenen araubidea Natura Ondareari eta Biodibertsitateari

El régimen de las infracciones y sanciones se regula en la Ley 42/2007, de 13 de diciembre,

buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legean eta Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legean edo horiek ordezten dituzten arauetan arautzen da.»

del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad, y en la Ley 9/2021, de 25 de noviembre, de Conservación del Patrimonio Natural de Euskadi, o en las normas que las sustituyan.»

Sei. 6 artikulua gehitzen da, honela geratzen dena idatzita:

Seis. Se incluye un nuevo artículo 6 con la siguiente redacción:

*«6. artikulua. Indarraldia.*

*«Artículo 6. Vigencia.*

Dekretu honen bidez onartzen den Gasteizko Mendiak KBEaren kontserbazio-tresnaren edukien indarraldia mugagabea izango da funtsezko kontserbazio elementuei, helburuei, erregulazioei eta jarraibideei dagokienez.»

La vigencia de los contenidos del instrumento de conservación de la ZEC Montes de Vitoria que se aprueba mediante el presente decreto será indefinida, en lo que respecta a los elementos clave, objetivos, regulaciones y directrices de conservación.»

Zazpi. Azken xedapenetako lehena modu honetan geratzen da idatzita:

Siete. La Disposición Final Primera queda redactada de la siguiente manera:

*«Azken xedapenetako lehena. Lehentasuna hirigintza- eta lurralde-antolamenduaren gainean.*

*«Disposición Final Primera. Prevalencia sobre la ordenación urbanística y territorial.*

Euskadiko Natura Ondarea Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 3. artikuluan xedatutakoa betez, dekretu honetako zehaztapenak zuzenean aplikatzekoak dira, eta Vitoria-Gasteizko udalaren hirigintza-plangintzan sartuko dira. Ildo beretik, dekretu honetan xedatutakoarekin kontraesanean dauden lurralde-antolamenduko tresnak dekretu honetara egokitu beharko dira.»

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 3 de la Ley 9/2021, de 25 de noviembre, de Conservación del Patrimonio Natural de Euskadi, las determinaciones del presente decreto son de aplicación directa y se incorporarán al planeamiento urbanístico municipal del municipio de Vitoria-Gasteiz. En el mismo sentido, los instrumentos de ordenación territorial existentes que resulten contradictorios con lo dispuesto en el presente decreto deberán adaptarse a éste.»

**Xedapen iragankor bakarra. Araubide juridiko iragankorra.**

**Disposición Transitoria Única. Régimen jurídico transitorio.**

1.– Europako Batzordean izapideak egiten diren aldian, uztailaren 21eko 148/2015 Dekretuaren bidez «Gasteizko Mendi Garaiak» (ES2110015) Kontserbazio Bereziko Eremu deklaratu zen lurraldean, dekretu honen I., II. eta III. eranskinak aplikatuko dira.

1.– En el periodo en el que se realiza la tramitación ante la Comisión Europea, en el territorio que fue objeto de designación como ZEC mediante el Decreto 148/2015, de 21 de julio, por el que se designa Zona Especial de Conservación «Montes Altos de Vitoria» (ES2110015), serán de aplicación los anexos I, II y III del presente decreto.

2.– Europako Batzordean izapideak egiten diren aldian, uztailaren 21eko 148/2015 Dekretuaren bidez «Gasteizko Mendi Garaiak» (ES2110015) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu ez zen lurraldean, Habitatei buruzko Direktibaren 6.2, 6.3 eta 6.4 artikuluetan jasotako zehaztapenak aplikatuko dira. Artikulu horiek Euskal Autonomia Erkidegoko ordenamendu juridikoan txertatu dira, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko

2.– En el periodo en el que se realiza la tramitación ante la Comisión Europea, en el territorio que no fue objeto de declaración mediante el Decreto 148/2015, de 21 de julio, por el que se designa Zona Especial de Conservación «Montes Altos de Vitoria» (ES2110015), serán de aplicación las determinaciones contempladas en los artículos 6.2, 6.3 y 6.4 de la Directiva Hábitats, incorporadas al ordenamiento jurídico de la Comunidad Autónoma de

42/2007 Legearen 46.4, 46.5 eta 46.6 artikuluen arabera.

**Xedapen indargabetzaile bakarra. Arauak indargabetzea.**

Dekretu hau indarrean sartzen denean, indargabetuta geratuko dira bertan ezarritakoaren aurka dauden maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

**Azken xedapenetako lehenengoa. Zuzenean ezargarriak diren neurriak.**

148/2015 Dekretuaren bidez onartutako KBEaren zabalkuntza gauzatuko da EHAAn natura-ondarearen arloko eskumenak dituen sailburuaren iragarkia argitaratu eta hurrengo egunean. Iragarki horrek Europako Batzordearen Erabakiaren berri emango du, eta une horretan eragingarriak izango dira eremu horretan dekretu honetan aurreikusitako kontserbazio neurri guztiak.

**Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean sartzea.**

Dekretu hau indarrean jarriko da EHAAn argitaratu eta hurrengo egunean.

Vitoria-Gasteiz, sinatzen den egunean.

Euskadi en virtud de los artículos 46.4, 46.5 y 46.6 de la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad.

**Disposición derogatoria única. Derogación normativa.**

A la entrada en vigor del presente decreto quedarán derogadas todas las disposiciones de igual o inferior rango que se opongan a lo establecido en el mismo.

**Disposición Final Primera. Medidas directamente aplicables.**

La ampliación de la ZEC respecto de la delimitación aprobada mediante el Decreto 148/2015 se hará efectiva el día siguiente de la publicación en el BOPV del Anuncio del consejero o de la consejera con competencias en materia de patrimonio natural, que dé publicidad a la correspondiente Decisión de la Comisión Europea, momento en el que serán efectivas en este ámbito la totalidad de las medidas de conservación previstas en el presente Decreto.

**Disposición Final Segunda. Entrada en vigor.**

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma.